**UDALBATZAK 2009KO ABENDUAREN 18AN EGINIKO OHIKO BILKURARI DAGOKION AKTA**

Errenteriako Udaleko bilkura-aretoan, bi mila bederatziko abenduaren hemezortziko 08:35 zirela, lehenengo deialdian eta Juan Carlos MERINO GONZALEZ alkate jaunaren esanetara, ondoko zinegotziak elkartu dira:

- Joaquin ACOSTA PACHECO
- Mª del Mar CARRILLO GASCON
- Silvia ASTORGA MARTINEZ
- Jesus OFICIALDEGUI RUIZ
- Joseba ECHARTE MARTIN
- Jose Angel RODRIGUEZ MEDINA
- Mikel DURAN GONZALO
- Juan Carlos MURUA ROMA
- Luis Santiago ANGULO MARTIN
- Agustina Ana CANO CEREIJO
- Iñaki QUERALT COIRA
- Gorka MAUDES MIGELTORENA
- Maite PEÑA LOPEZ
- Venancio GRAVINA ESNAL
- Jose Manuel FERRADAS FREIJO
- Jose LEGORBURU AYESTARAN
- Lucia PERALTA RODRIGUEZ
- Mª Angeles BASTOS FERNANDEZ
- Joxe BURGOS VIÑARAS

Ez da etorri, baina ezinetorria adierazi du Itsasne ALVAREZ DE EULATE LASA andreak.

Bertan dago udal kontu-hartzaile Jose maria ARENZANA GARCIA jauna.

Halaber bertan dago, egintzaz fede emateko, Francisco Javier LESCA EZPELETA idazkari jauna.

**ACTA DE LA SESIÓN ORDINARIA DE PLENO DE LA CORPORACION CELEBRADA EL DIA 18 DE DICIEMBRE DE 2009**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 08:35 horas del día dieciocho de diciembre del año dos mil nueve, se reúnen en primera convocatoria, bajo la Presidencia del Alcalde Don Juan Carlos MERINO GONZÁLEZ, los siguientes Concejales:

- Joaquín ACOSTA PACHECO
- Mª del Mar CARRILLO GASCÓN
- Silvia ASTORGA MARTÍNEZ
- Jesús OFICIALDEGUI RUIZ
- Joseba ECHARTE MARTÍN
- José Ángel RODRÍGUEZ MEDINA
- Mikel DURÁN GONZALO
- Juan Carlos MURUA ROMA
- Luis Santiago ANGULO MARTÍN
- Agustina Ana CANO CEREIJO
- Iñaki QUERALT COIRA
- Gorka MAUDES MIGUELTORENA
- Maite PEÑA LÓPEZ
- Venancio GRAVINA ESNAL
- José Manuel FERRADÁS FREIJO
- José LEGORBURU AYESTARAN
- Lucía PERALTA RODRIGUEZ
- Mª Ángeles BASTOS FERNÁNDEZ
- Joxe BURGOS VIÑARAS

No asiste excusando su asistencia Dª Itsasne ALVAREZ DE EULATE LASA.

Asiste el Interventor Municipal D. Jose María ARENZANA GARCÍA.

Asiste asimismo y da fe del Acto, el Secretario General D. Fco. Javier LESCA EZPELETA.

**1.- 2009ko azaroaren 16ko ezohiko bilkurari dagokion akta irakurtzea eta, hala badagokio, onartzea.**

Idazkariak 2009ko azaroaren 16an eginiko ezohiko bilkurari dagokion 12 zk.ko akta irakurri ostean, Bastos andrea (PP), bilkura egunean etorri ez zelako, abestenitu da. Beste gainontzeko guztiek aldeko bozka eman dute.

**1.- Lectura y aprobación en su caso del Acta nº 12 correspondiente a la sesión extraordinaria de fecha 16 de noviembre de 2009.**

Leída por el Secretario el Acta nº 12 correspondiente a la sesión extraordinaria de fecha 16 de noviembre de 2009, se aprueba con el voto a favor de todos los presentes exceptuando la abstención de la Sra. Bastos (PP), por no encontrarse presente el día de su celebración.

**2.- Ondorengo ebazpenen berri ematea: Alkatetzarenak (1604 zk.tik 1699 zk.ra, biak barne), Zinegotzi-ordezkarienak (1806 zk.tik 1938 zk.ra, biak barne) eta Tokiko Gobernu Batzordearenak.**

Idazkariak Alkateak emaniko ebazpenen (1604 zk.tik 1699 zk.ra, biek barne), Zinegotzi-ordezkariek (1806 zk.tik 1938 zk.ra, biek barne) eta Tokiko Gobernu Batzarrak emanikoan berri eman du.

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

Jarraian,

Mintzatu dira:

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du Gai Zerrendako hurrengo puntuaren inguruan ohartarazi behar du, aurreko urtean bezala, zer egin behar zen ondo ez zekitelako edo,

**2.- Cuenta de Resoluciones del Alcalde (nºs. 1604 al 1699, ambos incluidos), de Concejales Delegados (nºs 1806 al 1938, ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.**

Se da cuenta de las Resoluciones del Alcalde (nºs. 1604 al 1699, ambos incluidos), de Concejales Delegados (nºs 1806 al 1938, ambos incluidos) y de la Junta de Gobierno Local.

El Pleno queda enterado.

Seguidamente,

Se produce la siguiente intervención:

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) señala que en cuanto al siguiente punto del Orden del Día tiene que advertir que, así como el año pasado, en su primera edición, surgieron dudas sobre qué era lo que

non ematen zen berri, etab., zalantzak sortu zirela. Hemen ere ezustekoren bat edo distorsioren bat eman da, gaineratu du. Horrela, Hirigintza informazio-batzordean arazoak esplikatu zituzten, beste alternatibekin erkatu, arrazoiak eman, etab., baina une hartan "berri ematea" zela ulertu zen, errealitatean "onartu" egin behar zelarik, edo, hala balegokio, atzera bota. Hori ez zenez hala egin, orain, informazio-batzorde bakar batek ere ez zuelako irizpenik eman, Gai Zerrendan sartu behar dute aldez aurretik premiazkoa jotzeko bozketa egin eta gero. Eta aurrera ateratzen bada, ondoren eztabaidatuko dute.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Aldez aurretik, zegokion batzordeak irizpenik eman ez duelako, gehiengoz, aldeko 13 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Alkarbide, PP) eta 7 abstentzioz (Ezker Batua-Berdeak, atxiki gabeko zinegotziak), sartzea erabaki dute.

Ondoren, mintzatu dira:

* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) adierazi du eurek ez luketela inolako arazorik izango —premia izango balu—, kontua aztertzeko eta gaiaren inguruan erabakia hartzeko, baina jakin badakite programa horrek hiru hileko epea duela proiektuak zehazteko, eta pentsatzen dute oraindik badutela

procedía, donde se daba cuenta, etc., también en éste ha habido algún pequeño contratiempo o distorsión. En la Comisión Informativa de Urbanismo se expusieron los problemas, se contrastaron con otras alternativas, se razonaron, etc., pero en aquel momento se entendía que era un "*dar cuenta*", cuando en realidad hubiera habido que "*aprobarlo*", o rechazarlo si se diera el caso. Como eso no fue así, lo que se debe hacer a pesar de estar en el Orden del Día, al no venir dictaminado por ninguna Comisión Informativa, es votar previamente la urgencia de su inclusión y, si sale adelante, posteriormente procederán a su debate.

Finalizada la intervención.

Previa su inclusión por mayoría de 13 votos a favor (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Alkarbide, PP) y 7 abstenciones (Ezker Batua-Berdeak, Concejales no Adscritos), al no haber sido dictaminado por la Comisión correspondiente.

Se producen las siguientes intervenciones

* El Sr. Murua (Concejales no Adscritos) señala en euskera que ellos no tendrían ningún problema, si hubiese urgencia, para examinar y adoptar las decisiones oportunas en torno al tema, pero son conocedores de que dicho programa dispone de un plazo de tres meses para concretar los proyectos y para hablar de los

denbora proeiktu horietaz hitz egiteko eta, beharbada, adostasun zabalago bat lortzeko. Horrexegatik asbtenitu dira.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du, hizkera arruntean esaten den moduan, bera, epeari dagokion aferan, ez dela bere aitaz ere fio. Gainera, diru-laguntzekin zerikusia duten gai asko ditu mahai gainean, esaterako, Hiriber programa, eskolak, etab. Gai honen alde ona da hainbat erakundeetatik aportazio asko jasoko dutela, baina lan handia izaten da eta azken orduan beti gertatzen da ezustekoren bat, aldaketaren bat edo ulertu ez den zerbait, esan du. Beraz, bada, zenbat eta agudo egin orduan eta hobe, gaineratu du. Ulertu, ulertzen ditu Murua jaunaren (atxiki gabeko zinegotzia) argudioak, baina kasu horretan ez dator bat. Eta presaz tramitatzeearen alde bozkatu denez, gaia eztabaidatzera pasako dira.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Ondoko gaia ikusi dute:

**3.- Inbertsio eta gizarte ekintzetako programen zerrenda onartzeko proposamena, Enplegu eta Tokiko Iraunkortasunerako Estatu Fondoan sartzeko.**

13/2009 Errege Lege Dekretua, urriaren 24koa, Tokiko Enplegu eta

mismos, y, tal vez, para lograr un acuerdo más amplio. Es por ello que se han abstenido.

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde coloquialmente que no se fia ni de su padre, unicamente en el sentido de los plazos. Tienen sobre la mesa un montón de asuntos relacionados con subvenciones, como el programa Hiriber, los Centros Escolares, etc. La parte buena que tiene esto es que se recibirán aportaciones de distintas instituciones, pero es mucho el trabajo y siempre hay a última hora algún despiste, alguna modificación o algo que no se ha entendido. Por tanto, toda la velocidad que se le meta a este tema le parecerá poca. Entiende los argumentos del Sr. Murua (Concejales no Adscritos), pero en este caso no los comparte y dado que se ha votado a favor del trámite de urgencia, pasan a debatir el tema en cuestión.

Finalizadas las intervenciones.

Pasa a tratarse el siguiente tema:

**3.- Propuesta de aprobación de la relación de Proyectos de Inversión y de Actuación Social para su inclusión en el Fondo Estatal para el Empleo y Sostenibilidad Local (FEESOL).**

El Real Decreto Ley 13/2009, de 24 de octubre, crea el Fondo

Iraunkortasunerako Estatuko Diru-funtsa sortzen duen dekretuak bost mila milioi euroko aurrekontua du, eta horietatik, 4.162.674€ Errenteriako Udalari dagozkio.

Arauan bertan, 9. artikuluan, ezarri dira diru-funtsa horien bidez finantzatuko diren obra-kontratuak, gutxienez 3.328.471,- €ko inbertsioa izango dutenak. Era berean, 18. artikuluan zehaztu dira zerrenda horretan sar daitezkeen gizarte ekintzetako programak, gehienez 834.203,- €ko aurrekontua izango dutenak. Hau da, Udal honi dagokion %20aren parekoa.

Udalbatzaren Osoko Bilkurak eskuduntza du zerrenda honi onespena emateko.

Kontu-hartzaileak gaiari buruz 2009ko abenduaren 14an eta 15ean eginiko txostenak ikusi dituzte.

Errenteriako Udaleko Hirigintza, Gizarte Zerbitzuak eta Hezkuntzako ordezkariek eginiko proposamenak ikusitakoan.

Eta Alkatearen proposamena ikusi ostean.

Mintzatu dira:

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) adierazi du plan horrekin zerikusia duten dekretu guztiek sor diezaioketen lege-zalantzaz gainera, bera eta bere udal taldea konbentzituta daude

Estatal para el Empleo y la Sostenibilidad Local (FEESOL) dotado con cinco mil millones de Euros de los que 4.162.674 corresponden a este Ayuntamiento de Errenteria.

En la propia norma, en su artículo 9, se establecen los contratos de obras a financiar con los citados fondos, en una inversión mínima de 3.328.471,- Euros. Asimismo el artículo 18 establece los programas de actuación social que pueden ser incluidos en dicha relación con un límite máximo de 834.203,- Euros equivalente al 20% de lo que corresponde a este Ayuntamiento.

Es competente para la aprobación de la presente relación el Pleno de la Corporaciòn.

Vistos los informes elaborados por el Sr. Interventor en fechas 14 y 15 de diciembre de 2009.

Vistas las propuestas de los Delegados de Urbanismo, Servicios Sociales y Educación de este Ayuntamiento de Errenteria.

Vista la propuesta del Alcalde.

Se producen las siguientes intervenciones:

* Interviene el Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak) manifestando que, mas allá de las dudas legales que le pueden surgir de todos los decretos relacionados con este plan, este Concejal y su Grupo municipal

Alkateagatik izan balitz, puntu hori ez zukeela Gai Zerrendan sartuko eta Alkatetza-dekretu bidez ebatziko zukeela. Bere iritziz, horrek erakusten die nola ulertzen duen Alkateak plan horiek egin behar direla. Gutxien gutxienekoak ere ez dituzte bete, ez litekeelako eztabaidatzat jo aurreko ostiralean Hirigintza batzordean gertaturikoa, ezta informazioa eman izanaz ere. Era berean, ez da informaziorik eman Hezkuntza eta Gazteria batzordean, ezta aurreko astelehenean Gizarte Zerbitzuetan eginiko batzordean ere. Horrela, uste dute Alkateak aukera guztiak galdu dituela —eta jada asko dira— akordioa Udalbatza osoarena izateko. Gauza jakina da puntua aurrera aterako dela, aldeko 13 boto dituelako, baina horixe du argudio bakarra, gaineratu du. Eurek ez dute argudio gehiagoren berririk, izan ere, ez baitu gainontzeko zinegotziek (atxiki gabekoek zein Ezker Batua-Berdeak-ekoak) eginiko proposamenak ezagutzera emateko adinako ikustaterik izan. Beraz bada, Alkateak ez diela itxarongo badakienez, bere taldeak ez du aldeko botorik emango.

tienen el convencimiento de que si por el Alcalde fuese, este punto no se hubiese incluído en el Orden del Día y se hubiese resuelto por decreto de alcaldía. Lo cual les da una pista de cómo entiende el Sr. Alcalde que se tienen que desarrollar este tipo de planes. Piensa que no se han guardado ni las más mínimas formas, no se puede considerar debate ni información lo ocurrido en la Comisión de Urbanismo del viernes anterior. Y por no informar, no se ha informado ni en las Comisiones de Educación y Juventud, ni en la de Servicios Sociales celebradas el pasado lunes. En ese sentido, el Sr. Alcalde ha perdido otra oportunidad, y van muchas, de que el acuerdo fuese del conjunto de la Corporación. Evidentemente este punto se va a aprobar porque tiene 13 votos a favor y ese es su único argumento, porque no conocen más argumentos, ni tan siquiera ha tenido el detalle de trasladar al resto de los Concejales las propuestas alternativas que tanto los Concejales no Adscritos, como los de Ezker Batua-Berdeak, han realizado. Por tanto, y ya sabe que el Alcalde no lo espera, pero evidentemente su Grupo no va a votar a favor.

* Angulo jaunak (atxiki gabeko zinegotziak) adierazi du eurek zalantza bat dutela eta Alkateari argitzeko eskatzen dio. Lehenengo programaren barruan (Parke kalea urbanizatzea) aipatzen den 10/01 jarduketa-eremuan 1.409.000 €tik gorako proiektu bat dago onartzeko, baina ikusi dute egun horretan

* Interviene en euskera el Sr. Angulo (Concejales no Adscritos) manifestando que tienen una duda y solicitan del Alcalde que la aclare. Así, dentro del primer programa (urbanización de la calle Parque) de la Unidad de Intervención 10/01 se menciona un proyecto de 1.409.000 euros y pico para su aprobación. Sin

bertan Gobernu Batzarra elkartuko dela eta hirugarren puntuan, eremu berean, proiektu baten lehen aldaketa onartuko duela. Beraz, eurek goizeko 9ak aldera proiektu bat onartzen badute, eta gero 12:30ean aldaketa egiten bada, zer egiten ari diren jakin nahi dute. Izan ere, uste baitute lehenik aldaketa egin beharko zuketela, eta gero onartu eskuartean duten proiektua.

embargo, ese mismo día han visto que en el tercer punto del Orden del Día de la Junta de Gobierno, en el mismo ámbito, se va aprobar la modificación de un proyecto. Por ello, si ellos aprueban un proyecto en torno a las 9:00 horas, y luego, aproximadamente a las 12:30 se modifica el mismo, desean saber qué es lo que están haciendo allí. Consideran que primero habría que realizar la modificación y posteriormente aprobar el proyecto que tienen entre manos.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du bi kontu ezberdin direla. Igogailuak jartzeko proiektua ez da aldatuko, gaineratu du. Gobernu Batzarrean aldatuko dutena Errenteria Garatuzek garajeei buruz eginiko proiektua da. Eta, berriro dio, igogailuaren aferak ez duela aldaketarik exijitzen, eta horrexegatik, Hirigintza batzordean ikusi zuten bezala, dute orain onartzeko.

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) explica que se trata de dos temas diferentes. El proyecto para la instalación de ascensores no va a sufrir modificación. El que exige modificación es el proyecto que se trató en Errenteria Garatuz referido al tema de los garajes y ese es el tema que va a la Junta de Gobierno. Repite que el tema de los ascensores no exige modificación, va a ir tal y como se trató en la Comisión de Urbanismo y se presenta ahora para su aprobación.

* Angulo jaunak (atxiki gabeko zinegotziak) adierazi du zalantzak zituztela proposamenean 10/01 eremuan azaltzen zelako. Bestalde, duela hilabete zenbait, bilera berezi bat egin zuten Udalaren egoera ekonomikoaren inguruan. Bertan kontu-hartzailea egon zen eta egoera oso zaila eta larria zela esan zuen. Gainera, zinegotzi guztiei esan zien denek itsasontzi berean zeudela eta denen artean bide onetik bideratu behar zutela. Eurek,

* El Sr. Angulo (Concejales no Adscritos) señala en euskera que tenían dudas debido a que en la propuesta aparecía el Ámbito 10/01. Por otra parte, algunos meses atrás se realizó una reunión extraordinaria en relación a la situación económica del Ayuntamiento. En la misma el Sr. Interventor señaló que la situación era difícil y grave. Además les dijo a los concejales que todos estaban en el mismo barco y que entre todos

oposiziotik ordea, ikusten dute kontu-hartzaileak egun horretan eskatu zuena ez dela betetzen. Zeren eta, Gobernu Taldeak proiektu batzuek aurkeztu baditu ere, oposiziotik ere beste zenbait planteatu dituzte, baina oposizioaren ideiak, nahiz eta ez izan txarrak, ez dira kontuan hartzen, esan du. Hortaz, badirudi itsasontzian denek egin behar dutela arraunean, baina denek ez dutela leku berera joan nahi, gaineratu du. Bestalde, aurkezturiko proiektu-zerrendaren inguruan, eurek ez dute esaten beharrezkoak ez direnik, baina bai lehentasun-irizpen desberdinak dituztela. Gainera, hori ez da oraingo kontua, aspaldikoa baizik. Esaterako, lehenengo proiektuarekin ez datoz bat, igogailuez gain badakitelako Galtzarabordako bizilagunek Parke kale horretan pilotaleku bat egitea nahi zutela aspaldian eta ez dela egin. Badakite ez dagoela lotuta igogailuarekin, baina ikusten dute bizilagunek eskatzen dutena ez dela kontuan hartzen. Bigarren proiektuari buruz ez dute esaten puntu hori hobetzea beharrezkoa ez denik, baina, adibidez, Pontikako bizilagunek orain dela hamar urte parke bat egina behar zuten, eta oraindik ez da existitzen, nahiz eta badakiten aurreproiektu bat bazegoela. Hortaz, hor jarriko den kamera-sistema hori eurek ez dute beharrezkoa ikusten. Iruditzen zaie alferrikako dirua gastatuko dela, besteak beste, lehenik hor kamera horiek kontrolatzeko gauza bat jarriko delako eta azkenean diru gehiago gastatuko dutelako beste

tenían que conducir en la buena dirección. Ellos, sin embargo, desde la oposición consideran que lo que ese día solicitó el Sr. Interventor no se cumple, debido a que —aunque el Equipo de Gobierno haya presentado algunos proyectos— las ideas de la oposición, aunque no sean malas, no se toman en consideración, y tampoco los proyectos presentados por la misma. Por ello —dice— parece ser que en el barco tienen que remar todos, pero no todos desean llegar al mismo lugar. Por otra parte, en cuanto a la relación de proyectos presentados, ellos no dicen que no son necesarios, pero piensan que tienen diferentes prioridades y criterios. Además, añade que ese no es un tema de ahora, sino que viene de atrás. Por ejemplo, no están de acuerdo con el primer proyecto, puesto que saben que además del ascensor, los vecinos de Galtzaraborda deseaban que se realizara un frontón en la calle Parque, cosa que no se ha efectuado. Asimismo, son conocedores de que no tiene vinculación con el tema del ascensor, pero consideran que no se tiene en cuenta lo que solicitan los vecinos. En cuanto al segundo punto ellos no dicen que no sea necesario mejorar esa zona, pero, por ejemplo, los vecinos de Pontika tenían que disponer de un parque desde hace diez años, sin embargo, a pesar de que se realizó un anteproyecto, todavía no existe. Por tanto, el sistema de cámaras que se va instalar en dicho lugar ellos no lo ven preciso. Consideran que se va a realizar un gasto innecesario,

batzuek jartzeko, etab. Ondorioz, oposizioak aurkezturiko proiektuak sartu ez dituztenez, eta denek zentzu berean egin behar badute arraunean, uste dute euren ideiak eta proposamenak kontu hartu beharko liratekeela. Horrezaz gain, ikusten dute jasoko den diru hori ez dela auzoka banatuko, eta eurek uste dute auzo guztiak kontuan hartu behar direla banaketa egiteko orduan. Horregatik, guztiagatik, eurek ez dute aldeko botorik emango.

puesto que ahora se va a instalar un aparato para controlar dichas cámaras, y luego se gastará más dinero para poner otras cosas, etc. En consecuencia, como quiera que no se han tenido en cuenta los proyectos presentados por la oposición, y, si tienen que remar todos en la misma dirección, creen que sus ideas y propuestas se deberían contemplar. Además, ven que dicho dinero no se va a distribuir por barrios, y como ellos son partidarios de tenerlos en cuenta a todos ellos a la hora de realizar la distribución, no van a votar a favor de la propuesta.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du aurrez mintzatu direnek esan dituzten gauzetatik pare bat aitatu nahi dituela. Ohiko gastuari bideraturiko diruari dagokionez, uste du kontu horrekin gasta zezaketen gutxiena gastatuko dutela. Hots, aportazio osotik %20 bideratuko dute xede horrekin Gizarte Zerbitzuetara, Kiroletara, Kulturara, Hezkuntzara, etab.era. Bere aburuz, ulertu behar dute Udalerriari edo Udalbatzari berdin zaiola zati bat ikastetxeak garbitzeko eta beste zati bat Abegi etxera, hala nola Adinekoen Egoitzara eta Kiroldegia mantentzeko baliatzea. Errealitatean inporta duena da %20 horrek 800.000.- euro, gutxi gora-bera, suposatzen duela. Eta kopuru horretatik berdin zaie ikastetxeak garbitzeko kontutik edo Adinekoen Egoitza kudeatzetik aurrezten badute. Edonola ere —dio—, bi gai horiek aukeratu zirenez,

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) señala que entre las intervenciones que ha habido quiere comentar un par de temas. En lo que respecta al apartado destinado a gasto corriente, se ha hecho lo único que se podía hacer. Es decir, es el 20% del total de la aportación, como todos saben, con destino a alguna partida de gasto corriente, con destino a Servicios Sociales, Deportes, Cultura, Educación, etc. Hay que admitir, a su entender, que al Municipio o a la Corporación, le da igual que se haya destinado una parte a limpieza de colegios y otra al Centro de Acogida, como que se hubiera destinado a la Residencia de Ancianos y al mantenimiento del Polideportivo. En realidad lo que cuenta es que ese 20% son 800.000 euros más o menos, y si se ahorra ese importe en limpieza de colegios, les da lo mismo que si se lo ahorran

zegokien batzordeetara eraman dituzte, hau da, Hezkuntza eta Gizarte Zerbitzuetara. Hala ere, uste du, soilik ohiko gastua kitatu nahi zelako, hor eztabaida gutxi eman zitekeela. Gainontzeko proiektuei dagokionez, berriz, nahiz eta nahiko ohituta dagoen antzeko gauzak entzutera, ez dator bat ez dela eztabaidarik izan eta alternatibak ez direla ikusi esaten dutenekin. Horrela, Ezker Batua-Berdeak-eko ordezkariak esaten zuen ez direla oposizioaren proposamenak zabaldu ere egin, baina berak esana zion ez zuela banatu erregistroan sarrera emandako inprimaki ofiziala, hain justu aldez aurretik berak (EB-B) eman zielako talde guztiei. Atxiki gabeko zinegotzien proposamenari dagokionez, ostera, batzordean esan zuen ez zekiela egin zutenik ere, eta halaxe uste zuen batzordea amaitu eta bere bulegora iritsi zen arte. Beraz, bada, azken egunean eman baldin bazioten sarrera, aldez aurretik ikustea ezinezkoa zen, gaineratu du. Edonola ere, batzordean aitatu zuen moduan, berak ez du esan proiektu horiek baliorik ez dutenik. Bakarrik esan du 3.328.000 eurorekin kontua amaitzen dela. Ez dago gehiago, oxala balego bikoitza, gaineratu du. Gauzak horrela, lehentasunak ipini behar zituzten, eta ados dago batzuek gauza batzuei emango dietela, eta besteek, besteei. Hala ere, norbaitek esan ahal dezake aurkezturiko proiektuak ez direla bidezkoak, ez direla onak, ez direla beharrezkoak, baldintzaren bat ez dutela betetzen, galdetu du. Esaterako, bi kaletan dena jaso

en gestión de la Residencia de Ancianos. No obstante como se optó por esos dos temas, se han llevado a las Comisiones de las cuales dependen, es decir, Educación y Servicios Sociales. Pero bien poco debate podía haber ahí, puesto que se trataba unicamente de enjugar el gasto corriente. En cuato al resto de los proyectos, aunque está acostumbrado a oirlo, no está de acuerdo en que no haya habido debate ni se hayan contemplado alternativas. El portavoz de Ezker Batua-Berdeak decía que ni siquiera se habían repartido las propuestas alternativas de la oposición, y ya le había contestado que no repartió el impreso oficial registrado, porque él ya se había preocupado previamente de hacérselo llegar a todos los Grupos. En cuanto a la propuesta de los No Adscritos, dijo en la Comisión que no le constaba, y efectivamente así era hasta que terminada la Comisión, subió a su despacho y la encontró allí, pero era imposible haberla visto si la habían registrado el último día. De todas formas, como comentó en la Comisión, no ha dicho que no valga ninguno de los proyectos presentados, simplemente están hablando de que ésto, con 3.328.000 euros, se acabó, no hay más, ojalá hubiera habido el doble. Por tanto había que priorizar, y está de acuerdo en que unos pueden tener unas prioridades y otros otras. Ahora bien, ¿está alguien en condiciones de decirle que los proyectos que presentan no son válidos, no son buenos, no son necesarios, no cumplen con alguno de

behar da ur-zikinen eta edangarrien hoditeria ipini behar delako. Gero, jakina, alde batetik gutxiago kutsatu, eta bestetik, ur gehiago aurreztuko dute. Kiroldegiko hormaren kontua, aldiz, nahi gabe etorritakoa da. Ez du gogoratzen Beraungo atletismo pista konpontzerakoan edo pilotalekuaren itxitura egiten ari zirela gertatu zen, baina, edonola ere, zortea izan zuten garaiz antzeman ziotelako alde batetik, eta bestetik, diru pila kostako delako, eta horregatik, aitatu zerrendan sartzea lortu zutelako. Iztietan kontrolatzeko kamaren aferan, berriz, bertako biztanleriaren zati batek erreklamatzen ditu, hain zuzen, kale bakoitzean zer gertatzen den ikusteko. Parke kaleari dagokionez, ostera, bere ustez lehentasunak inguru hori urbanizatzekoak dira —bizi guztian horrela dagoelako— eta oztopoak kentzekoak. Auzo Elkartearen lokalean, elkartea berarekin eta bertaratu ziren hainbat bizilagunekin eztabaidaturiko proiektua da, esan du. Bertan alternatiba ezberdinak ikusten aritu ziren, une hartan pilotalekua ere jasotzen zen, baina ikusmira-inpaktua izugarria zelako, bazen atzera botatzen zuenik, gaineratu du. Eta, berriro dio, udal aurrekontuari eragiten dioena inguru hori berrurbanizatzea dela eta mugikortasuna errazteko bitartekoak jartzea. Kasu honetan, igogailua, teknikariek halaxe aholkatzen dutelako, esan du. Bizilagun zenbaitek uhal-garraiatzaileak jartzeko eskaera egin zuen, baina holako desnibelak izanik ezinezkoa

los requisitos que se plantean?. Por ejemplo hay dos calles que es preciso levantar en su totalidad porque hay que cambiar las canalizaciones, tanto de aguas residuales, como potables. Eso lleva a evitar que se contamine el suelo por un lado y por otro a que se haga ahorro de agua. El tema del muro del polideportivo ha sido algo sobrevenido, no recuerda si se ha descubierto al arreglar las pistas de atletismo de Beraun o al hacer el cierre del frontón, pero en cualquier caso, por un lado hubo suerte de que se detectó ese fallo y por otro la desgracia de que su reparación cuesta un montón de miles de euros, pero había que hacerlo y se ha incluido en la relación. Las cámaras de control en Iztieta, son algo que por lo menos una parte del vecindario está reclamando como medida para conocer lo que se cuece en cada calle. En cuanto a la calle Parque, las prioridades a su entender son las de urbanizar ese entorno, que lleva toda la vida tal y como está, y eliminar barreras. Es un proyecto que ya tuvieron ocasión de debatirlo en el local de la Asociación de Vecinos, con la propia Asociación y un buen número de vecinos que asistieron. Allí se barajaban diferentes alternativas, en aquel momento figuraba incluso el frontón y había a quien le echaba mucho para atrás porque el impacto visual era muy considerable. Repite que lo que afecta al presupuesto municipal es, reurbanizar ese entorno e instalar los medios que faciliten la movilidad, ascensores en este caso, porque asi lo

da hori jartzea, esan du. Beste batzuek eskailerak eskatzen dituzte, baina horiek ere ez dira batere gomendagarriak akats gehiago izaten dituztelako, besteak beste, jendeak kaltetu ditzan erraza izaten dutelako, eta zailagoa delako bertan barrena ibiltzea gurpildun aulkiak, haur-aulkiak, muletak dituzten pertsonak, erosketako orgatxoak eta beste arrazoi askorengatik. Eskarmentua dute Kaputxinoetan eta Fanderia-Agustinetan jazotakoarekin eta horiek erakutsi die aukerarik onena, zalantzarik gabe, igogailuarena dela. Hori eztabaidatzen aritu dira, gutxienez, duela lau urtez gero. Bilerak egin dituzte, gaurko osoko bilkurara etorri diren bezala, bizilagunak etorri dira, etab. Era berean —dio—, hor dago garaje-proiektua, bere aburuz besteak baino lehentasun gutxiago du, eta horregatik beste atal batean dago sartuta, baina proiektua ehuneko ehunean subentzionatuta dagoelako, horri esker, gauzatuko dute. Horrez gain, ea Barandiaran parkea sar zezaketen ikusten ibili ziren, baina ez zuten denborarik aski, besteak beste, lurra aztertu eta garbitubehar delako. Horrez gain, baimena eskatu eta estalita dagoen erreka agerian utzi behar dute. Eta bestalde, badago proiektu bat horrerako, baina ikusi dute hark ez zuela aurreikusten, euren ustez, interesgarriak izan litezkeen ertz batean garajeak, etab. egiteko aukera. Laguntzak emateko asmoa zegoela jakin zutenean teknikariei galdetu zieten, baina denborarik ez zegoela ohartu ziren. Inola ere

recomiendan los técnicos. Hay peticiones de algunos vecinos para que se instalen cintas transportadoras, lo que es imposible de instalar en un lugar con esos desniveles. Otros solicitan escaleras, pero son totalmene desaconsejadas porque están más expuestas a fallos, a vandalismo, no pueden ser utilizadas con la misma facilidad que los ascensores por sillas de ruedas, ni por sillas de niños, ni por personas con muletas, ni por carritos de la compra, ni por otras muchas razones. Tienen la experiencia tanto en el Barrio de Kaputxinos como en Fanderia - Agustinas y les demuestra que con mucho, el ascensor es la mejor opción. Eso es lo que se viene debatiendo hace como mínimo cuatro años, ha habido reuniones, han venido los vecinos, como también están hoy en el Pleno, y eso es lo que se ha hecho. También está el proyecto de garajes, que a su entender no tiene la misma prioridad que ese otro tema y entra en otro apartado, porque en éste, tienen la suerte de que es un proyecto cien por cien subvencionado y gracias a eso pueden hacerlo. Hubiera podido entrar el Parque de Barandiaran, lo estuvieron barajando, pero no había tiempo porque hay que estudiar y descontaminar el terreno, hay que pedir permiso y aflorar la regata que está cubierta, hay un proyecto que no contemplaba lo que luego se ha visto como interesante, de complementarlo con garajes en uno de los extremos, etc. Se consultó con los técnicos cuando se supo que iban a darse las ayudas, pero se vio que

txarrak ez ziren proposamen gehiago ere egin dira, baina, berriro dio, aukeraketa bat egin behar zutela.

no había tiempo. Ha habido otras propuestas que no eran en absoluto malas, pero insiste en que había que optar.

* Jendartean zegoen pertsona batek adierazi du bizilagunek nahiago dutela igogailuak baino zintak edo arranpa mekanikoak ipintzea.

* Interviene una persona del público manifestando que los vecinos prefieren la instalación de cintas o rampas mecánicas a los ascensores.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), ika-mikan hasteko gogorik gabe, esan nahi dio toki horretan, dauden desnibelak kontuan hartuta, arranpa mekanikoa jartzea pentsa ezina dela, izan ere, eskalatzeko piolet bat erabili beharko baitzuketen. Teknika aldetik ipintzea ezinezkoa da, hain zuzen fisika den bezalakoa delako eta uhal-garraiatzaileak ezin direlako jarri. Bizilagunei eskailerak hobeto iruditzen bazaizkie, libre dira nahi dutena pentsatzeko, baina teknikariei galdetuz gero, horiek esaten dute eskailerak toki batzuetarako gomendagarriak direla baina beste batzuetako ez. Eta teknikariak entzunda gero, bera lasai dago ordura arte martxan dituztenetik jasotako esperientziek halaxe erakusten dietelako. Hots, ez dute kexa bakar bat ere, eta hori, hasiera batean zenbait bizilagun, euren etxeetatik oso hurbil zegoelako, soinua egingo zuela, etab.engatik, kexatzen bazen ere.

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que, sin ánimo de entrar en polémica, quiere decirle que la rampa mecánica ahí, con los desniveles que hay, es inimaginable a no ser que la utilizara con un piolet de escalar. Es técnicamente imposible ponerla, la física es la que es y no se pueden poner cintas. Si a los vecinos les parecen mejor las escaleras, están en su derecho de opinar lo que quieran, pero consultados los técnicos dicen que hay lugares donde son recomendables las escaleras y lugares donde no lo son. Y después de oir a los técnicos, le da mucha tranquilidad la experiencia de lo que ya tienen en marcha. No hay ni una sola queja de los ascensores que están instalados, y eso que en un primer momento había vecinos que decían que pasaba muy cerca de sus viviendas, que si el ruido, la intimidad, …, pero no se ha vuelto a oir ni una sola queja allí donde están instalados. Respeta la opinión de los vecinos, pero cree que ellos también respetarán la decisión que allí se tome y por eso se mantiene el proyecto de ascensores.

* jendartean zegoen pertsona batek adierazi du aurreko osoko bilkurara etorri zirela eta Alkateak bizilagunekin hitz egingo zuela esan ziela. Alabaina, ez da elkartu eta eurek aste honetan bertan ikusi dute nola izango den pilotalekuaren proiektua. Ez dute bizilagunekin hitz egin eta hauek zera eskatzen dute: Irun, Donostia, Andoain, Eibar bezalako herrietan, PSEk gobernatuak, eskailerak eta arranpa mekanikoak baldin badaude, zergatik hemen ez.

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak), jarduteko moduari dagokionez, adierazi du gauzak egiteko bi era daudela: bat, proiektuak definituak, pentsatuak eta idatziak edukitzea, baita EAOean dekretua argitara eman aurretik ere. Eta bestea, kolektibo ezberdinetako bizilagunen parte-hartzea nahi izatea, hain zuzen, plan berri horri proiektuak aportatzeko. Zeren proposamenean jasotako oinarrizkoa, ohiko gastua kenduta, hirigintza ingurukoa delako. Eta dekretua irakurtzen bada, ikus dezakete sar zitzaketela Gobernu Taldeak edo Alkate jaunak kontuan hartu gabeko jarduketak. Beretzat oso oinarrizkoa bada ere, baina seguru dago, herri honetako elkarteak Udalarengandik ez dutela jakin plan berri honi hainbat ekarpen egin ziezaioketela. Bere iritziz, jarduteko moduak daude eta, argi eta garbi dago elkarteekin ez bada egiten, oposizioko taldeekin ere ez dela egiten, esan du. Gobernu Taldeak ez du inolako interesik izan, ezta Alkate jaunak ere,

* Interviene otra persona del público manifestando que, vinieron al anterior Pleno y el Alcalde les dijo que iba a hablar con los vecinos, cosa que no ha hecho y ha sido esta misma semana cuando han podido ver lo que va a ser el proyecto del frontón. No han hablado con los vecinos y ellos se preguntan, ¿si en pueblos como Irun, Donostia, Andoain, Eibar, donde está el PSE gobernando, disfrutan de escaleras y rampas mecánicas, por qué aquí no?.

* El Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak) señala que en relación al método, hay dos formas de hacer las cosas, una es tener definidos, pensados y escritos los proyectos incluso antes de que salga el decreto en el BOE. Otra, es buscar la participación de las vecinas y vecinos de los distintos colectivos que pueden aportar proyectos a este nuevo plan. Porque fundamentalmente lo recogido en la propuesta, salvo en el gasto corriente, es de tipo urbanístico y si se lee el decreto, se ve que podrían haber cubierto otro tipo de intervenciones que el Equipo de Gobierno, o el Sr. Alcalde, no ha tenido en cuenta. Hay algo tan básico, y esta seguro de ello, como que las Asociaciones de distinto tipo de este Pueblo no se han enterado por el Ayuntamiento de que había posibilidad de hacer una serie de aportaciones a este nuevo plan. Las formas son las formas y evidentemente, si eso no se hace con las Asociaciones, tampoco se hace

herritarrek zer pentsatzen zuten eta zerbait aporta zezaketen jakiteko, gaineratu du. Hori horrela, eta proiektuen artean Alkateak Iztietako kamerak aitatu dituenez, bere aburuz, han ematen diren arazoak kamerak ipinita konponduko direla norbaitek uste badu, ederki dago, nabarmendu du. Hori, besteak beste, Auzo Elkarteak berak ez duelako uste Iztietako arazoak polizia edo errepresio bidez konponduko direnik.

con los Grupos de Oposición. No ha habido ningún interés por parte del Equipo de Gobierno, ni por parte del Sr. Alcalde, en saber qué pensaban y si podrían aportar algo o no podrían aportar nada. En ese sentido y ya que entre los proyectos ha citado el de las cámaras de Iztieta, si alguien piensa que los problemas allí se van a solucionar con la instalación de cámaras, van dados. Entre otras cosas, la propia Asociación de Vecinos no sitúa en el campo policial o en el campo represivo la solución a los problemas de Iztieta.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) uste du duela hil bat baino gehiago bozeramaile guztiei proiektuak eman zizkietela, besterik da gero horiekin zer egin duten, esan du. Zin egingo luke duela hil bat baino gehiago zerrenda hori eman ziela. Bertan, eguzki-panelak, telefono-zentrala eta beste gauza asko azaltzen ziren. Berari gustatuko litzaiokeen, oposizioak aukeraturikoez gain, gauza horiek guztiek sartzea, baina, berriro dio, lehentasun kontua dela. Lehen mintzatu den batek diru hori auzoka banatu beharko litzakeela esan du, ba, hori ere aurreikusi dutela, gaineratu du. Zeren eta, deskuidatuta ez badago, aurreko planean proiekturik gabe geratu zen auzo bakarra Kaputxinoetakoa izan zen, eta horregatik sartu dute orain Manuel Zamarreño parkea ingurumen aldetik eraberritzea. Beste lekuetan —dio— ere, esaterako, Galtzarabordan ez zen gauza askorik egin, eta

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) cree recordar que a todos los portavoces se les dio hace más de un mes una relación de proyectos, otra cosa es lo que luego hayan hecho con ella. Juraría que hace más de un mes se les dio esa relación, donde entraban paneles solares, centralita telefónica y un montón de cosas más. Le habría gustado poder meter todas esas cosas y además las que presentaba la oposición, le hubiera encantado, pero repite que es una cuestión de prioridades. Antes se ha hecho una intervención diciendo que esto debería repartirse por barrios, pues hasta eso está contemplado, porque, si no se equivoca, el único barrio que quedó sin ningún proyecto en el anterior plan fue el Barrio de Kaputxinos, y por esto entra ahora la recuperación ambiental del parque Manuel Zamarreño. En otros lugares, como Galtzaraborda, tampoco se hizo mucho y por eso va el plan de los

orain, horregatik egingo dute han igogailua jartzeko plana. Berak ulertu eta onartzen du norbaitek beste proiektu batzuek nahi izatea, eta, berriro dio, bera ez dagoela gainontzeko proiektuen aurka, kontua da denak ezin direla sartu. Bera pozik egongo litzateke gutxienez milioi bat euro eguzki-plaketan gastatu ahalko balute, ingurumen aldetik ona delako eta onuraren bat ekarriko zukeelako, baina ezinezkoa da, ez dago gehiago, esan du. Eta, berriro dio, Beraungo pilotalekuan bostehun mila euro derrigor gastatu behar izateak, baldintzatzen du beste gauzetara bideratu beharrekoa. Eta, errepikatu du, oposizioak bazuela Gobernu Taldeak zein proiekturi ematen zion lehentasunari buruzko informazioa.

ascensores. Entiende y admite que alguien prefiera otros proyectos y repite que no está en contra del resto de proyectos presentados, el problema es que no entra todo. Le hubiera encantado haber podido gastar por lo menos un millón de euros en placas solares, porque entiende que medioambientalmente es bueno y además hubiera reportado algún beneficio, pero no es posible, no hay más. Y repite que el hecho de tener que gastar forzosamente quinientos mil euros en el frontón de Beraun, también condiciona a que no se puedan destinar a otra cosa. Insiste en que la oposición sí que tenía información sobre los proyectos que el Equipo de Gobierno quería priorizar.

* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) adierazi du finantzazioa aitzakia bat izan litekeela, baina ez dela baliagarria. Izan ere, Espainiar Estatuak programa mota hauek sustatzeko milaka milioi gastatuta ere, denek ikusi dute zer nolako ondorioak ekarri dituen. Zeren eta, denek ikus baitezakete prentsan Espainia dela ekonomia arloan Europa osoan okerren dagoen estatua, eta horrek, eraginaren bat izan dezakeela uste du. Alabaina, Espainiar Estatuak programa mota hauek sustatzeko diru asko jarrita ere, zoritxarrez, herri honetan ez litzateke, oro har, oposizioak aurkezturiko proiektu bakar bat ere, nahiz eta txikia izan, jasoko. EAJko ordezkariak keinu antzeko bat egin du, non “hauxe tokatzen da” edo esan nahi izan baituen, baina ez dezatela

* El Sr. Murua (Concejales no Adscritos) señala que la financiación puede ser una excusa, pero no es válida. Por muchos miles de millones que se gastase el Estado Español para fomentar este tipo de programas, con las consecuencias que eso tiene, porque todos pueden ver en la prensa que España es el estado peor situado a nivel económico en toda Europa y esto puede tener alguna incidencia en esa situación. Pero, continúa, por mucho dinero que dirigiesen desde el Estado Español para fomentar este tipo de programas, desgraciadamente en este Municipio no se recogería ninguna obra, ningún proyecto, por muy pequeño que fuera, si es presentado por la oposición en general. La representante del PNV hace un gesto como queriendo decir “és lo que

esan kontsentsua bilatzen dutela, bere lagunak esan duen moduan, denek norabide berean arraunean egiteko. Bere iritziz ez dago borondaterik, eta milioi gehiago izan balira, Alkateak lehenengo proposamenean aurkeztu zituzten proiektu guztiak sartuko zituzkeen. Eta oraindik gehiago izango balira, sakelatik beste hainbeste aterako zituzketen, gaineratu du. Azken finean, arazoa da Gobernu Taldeak beldur izugarria diola oposizioak eta giza-eragileek, baldintza minimoetan, Udalaren kudeaketan parte hartzeari, nahiz eta denek esaten duten herritarrengandik hurbilen dagoen erakundea dela. Gainera, hori, bere irudipena izateaz landa, herritar eta giza-agente askorekin froga dezakete. Hau da, erakunde hau ez dago herritarrengandik batere hurbil, nabarmendu du. Argi eta garbi dago, zentzu horretan, denek dituztela euren proiektuak, eta esan beharko zuketen programa horiekin, bi urtez, hamaika milioi euro jaso direla. Eta zuek, Gobernu Taldekook, Ezker Batuak zioen bezala, zuen proiektuak inposatuko dituzue botoak direla medio. Argi dago, zilegi dela botoak dituzuelako, baina, bere irudiko, adibide argia da beldur horren adierazle bat dela baztertuta geratzen direla bai oposizioa, bai herri honetako giza-agente guztiak. Berari anekdotikoa iruditzen zaio Alkateak esatea Iztietan badaudela zenbait bizilagun eskatzen dutenak. Haatik, berak esan behar du Pontikan ez bizilagun batzuk, baizik eta gehien-gehienak —bere lagunak esan duen moduan— hamar urte daramatela eskaka. Beretzat kasu horretan

toca”, pero luego no se diga que están buscando consensos para que, como ha dicho antes su compañero, todos remen en la misma dirección. No hay voluntad, y si hubiese habido más millones, el Alcalde hubiese metido todos los proyectos que les presentaron en la primera propuesta, y si hubiese habido más aun, se hubiesen sacado del bolsillo otros tantos. Porque al final, el problema es que este Equipo de Gobierno tiene vértigo a que la oposición y los agentes sociales puedan participar con mínimas condiciones en la gestión del Ayuntamiento, a pesar de que todos dicen que es la institución más cercana al ciudadano. Pero, y esto además de ser su opinión puede contrastarse con la de muchos ciudadanos y agentes sociales, esta institución no está nada cercana a los mismos. Es evidente que en ese sentido todos tienen sus proyectos, y habría que decir que en esos programas, que en dos años van a sumar once millones de euros, ustedes, el Equipo de Gobierno, tal y como decía Ezker Batua, van a imponer sus proyectos por razón de los votos. Evidentemente, es legítimo porque tienen los votos, pero es un exponente claro de ese vértigo y de esa exclusión a que tienen sometida tanto a la oposición, como a todos los agentes sociales de este Municipio. Ha habido un aspecto que puede ser anecdótico, que es el de las cámaras, el Alcalde lo justifica diciendo que hay vecinos de Iztieta que las piden. Decir a esto que, no algunos, sino la mayoría de vecinos de Pontika, como ha dicho su

argudio horrek ez du balio eta baztertu egiten du. Bere aburuz, argudioak bi aldeek dituzte, baina, berriro dio, kontsentsua bilatzeko borondaterik ez dutela besteek.

compañero, llevan con su reivindicación diez años, pero claro, en este caso el argumento no vale y se deja de lado. Argumentos hay por las dos partes, pero repite que lo que no hay es voluntad de buscar consensos.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du, lehen esan duen moduan, bere lehenengo proposamena Barandiaran parkekoa izan zen. Gero, ikusi dute oposizioko talderen batek hori lehentasun gisa planteatzen zuela. Sinets diezaiokete proposamenen artean hori izan zela lehenengo egin zuena. Horrela, hasiera batean balioko zuela pentsatu zuen, baina gero, lehen aitatu dituen tatxa guztiak jarri zizkioten mahai gainean. Lehenengoa izan zen, aspaldi samarretik zain dagoen proiektua delako, gaineratu du. Oposizioak egin zuen beste proposamen bat ikastetxe bateko patioa hein batean estaltzekoa izan zen, baina, kasualitatez edo, beste ikastetxe bateko patioaren zati bat estaltzekoa sartu dute. Kasualitatez dio izenarekin ados jarri ez direlako, baina, uste du, adierazgarria izan daitekeela, aurrez hitz egin gabe, biek ikastetxeko patioa hein batean estaltzea pentsatu izana. Kamerei dagokionez, berriz, bere iritziz, ez du soilik bizilagunen eskaria asetzen, baita trafikoa kontrolatzeko elementuak —ito hidraulikoak etengabe era bandalikoan atakatzen dituztelako— zaintzeko beharra ere. Zoritxarrez —

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) señala que como ha dicho antes, su primera propuesta fue el parque de Barandiaran, luego ha visto que algún Grupo de la oposición lo planteaba como prioridad. Pueden creerle que entre todas las propuestas fue esa la primera que hizo, en un principio se pensó que podía valer, pero luego le echaron sobre la mesa todas las pegas que antes ha dicho. Fue la primera porque es un proyecto que lleva en cartera bastante tiempo. Otra propuesta de la oposición que recuerda, fue la de cubrir parte del patio de un colegio, pero casualidad, se ha incluido la cubrición de parte del patio de otro colegio. Dice casualidad porque no se han puesto de acuerdo en el nombre, pero bueno, cree que puede ser significativo que sin haberlo hablado, ambos hayan pensado en cubrir parte del patio de un colegio, cree que debiera ser suficiente. En cuanto a las cámaras, no solo cumplen la petición de los vecinos, sino la necesidad de vigilar elementos de control de tráfico que están siendo atacados vandálica y permanentemente, se está refiriendo a los hitos hidráulicos. Por desgracia, es algo que técnicamente debe ser muy bueno,

dio—, itoak teknika aldetik oso onak badira ere, mekanika aldetik oso hauskorrak dira, eta ikusten ari dira nahita, bandalikoki, hausten dituztela. Gero, hausten duen harroputza lasai asko joaten den bitartean, konpontzea diru dezente kostatzen da. Bestalde, uste du oposizioak eta bizilagunek Galtzaraborda etorbideko afera planteatu beharko zukeela, zeren eta, mekanismo edo erreminten inguruan aldeak izango dituzte, baina txukuntzeko, urbanizatzeko eta oztopoak kentzeko beharra zegoela ez dago ukatzerik. Besterik da —dio— norbaitek beste herrietan dauden irtenbideak jarri nahi izatea, nahiz eta horiek Errenterian jartzeko ez izan egokiak. Eurek, horien ordez, igogailuen hautua egin dute, beti ere ikusirik, ordura arte duten esperientzia, hobea baino hobeagoa izan dela.

pero mecanicamente son muy frágiles y están constatando que de manera vandálica se están rompiendo adrede. Esto cuesta un dinero importante en su reparación y el gamberro que lo

hace se va de rositas. Por otro lado, cree que desde la oposición y por parte de los vecinos debiera haberse planteado el tema de la avenida de Galtzaraborda, porque diferirán en el mecanismo o en la herramienta, pero en que era necesario adecentar, urbanizar y eliminar las barreras, cree hay unanimidad. Otra cosa es que alguien quiera que se pongan soluciones que hay en otros municipios, pero que en Errenteria se han desaconsejado, eligiendose los ascensores como la mejor opción, repitiendo que la experiencia que tienen no puede ser más positiva.

* Peña andreak (EAJ/PNV) adierazi du, soilik forma kontuengatik, Murua jaunari (atxiki gabeko zinegotzia) esan nahi dio bere gorputz-hizkerarekin ez duela, inola ere, lehen hark esandakoa adierazi nahi izan. Bere aburuz Murua jauna bere lengoaia interpretatzeko garaian tronpatu da. Libre da nahi duena interpretatu eta nahi duena esateko, baina eskatuko lioke bera ez baliatzeko bere digresioa egiteko orduan, eta halaxe nahi du aktan jasotzea. Bera behartuta dago aipamen hori egitera, bestela hura egia dela onartuko lukeelako eta hori ez delako bere jarrera. Uste du hein batean bederen, ezagutzen dutela, eta

* Interviene la Sra. Peña (EAJ/PNV) manifestando que por una cuestión exclusivamente de formas, decirle al Sr. Murua (Concejales no Adscritos) que en ningún caso su lenguaje corporal ha señalado lo que él antes ha manifestado. Cree que ha errado en la interpretación de ese lenguaje, es muy libre de interpretar si quiere interpretar y de hacer la disertación que quiera, pero le pediría que no utilizara a esta portavoz para incidir en su disquisición, de tal manera que así quede reflejado en el acta. Se ve obligada a hacer este comentario, porque de lo contrario sería admitir que eso es cierto y esa no es su postura, cree que algo le conocen y

jakina, ez dago prest hori horrela uzteko.

desde luego, no lo va a consentir.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 13 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Alkarbide, PP), 5 boto aurka (atxiki gabeko zinegotziak) eta 2 abstentzioz (Ezker Batua-Berdeak),

El Pleno de la Corporación por mayoría de 13 votos a favor(Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Alkarbide, PP), 5 votos en contra (Concejales no Adscritos) y 2 abstenciones (Ezker Batua-Berdeak),

**E R A B A K I D U**

**A C U E R D A**

**1. Onartzea jarraian adieraziko den obra-proiektu eta gizarte izaerako ekintzen zerrenda** Tokiko Enplegu eta Iraunkortasuna sustatzeko Estatuko Diru-funtsan sartzeko.

**1º Aprobar la siguiente relación de proyectos de obras y actuaciones de carácter social** para su inclusión en el Fondo Estatal para el Empleo y la Sostenibilidad Local (FEESOL)

**OBRA PROIEKTUAK**

**PROYECTOS DE OBRAS**

**01** Proiektua: Parke kalea urbanizatzea, irisgarritasuna eta hiri igogailuak sustatzeko jarduketak burutzea - 10/01 EU: Frontoia - 10 Area: Galtzaraborda Mendebaldea. 1.409.547,03 €

**01** Proyecto para urbanización, actuaciones de accesibilidad y ascensores urbanos en C/ Parque - U.I. 10/01: Frontón - Area 10: Galtzaraborda Oeste. 1.409.547,03 €

**02** Proiektua: José Manuel Zamarreño parkea ingurumen aldetik hobetzea eta leheneratzea. 05 Area. Basanoaga - Sorgintxulo eta 04 Area Kaputxinoak. 449.996,45 €

**02** Proyecto de mejora y recuperación ambiental del parque José Manuel Zamarreño. Area 05. Basanoaga - Sorgintxulo y Area 04 Capuchinos. 449.996,45 €

**03** Proiektua: Resurrección María Azkue kalea eraberritzea. Azpiegiturak eta trazadura. 18 -32 eta 19 - 39 zenbakien artean. 22 Area. Agustinak. 486.552,24 €

**03** Proyecto de reforma de la C/ Resurrección Mª de Azkue. Infraestructuras y trazado. Nºˢ 18 al 32 y 19 al 39. Area 22. Las Agustinas. 486.552,24 €

**04** Proiektua: Beraungo kirol pisten eta frontoiko estalkiaren eustorma egonkortzea Burutzapen Proiektua. 11 Area. Beraun.

507.844,00 €

**04** Proyecto de Ejecución de estabilización del muro de contención de las pistas polideportivas y cubierta del frontón de Beraun. Area 11. Beraun.

507.844,00 €

**05** Proiektua: ibilgailuen trafikoari aplikatzeko CCTV sistema zentralizatua instalatzea.

210.000,00 €

**05** Proyecto de instalación de sistema CCTV centralizado para aplicación al tráfico de vehículos.

210.000,00 €

**06** Proiektua: Urdaburu kalea eraberritzea. Azpiegiturak. Murumendi kaleko 2zk. eta 4 zk. atzeko aldetik Urdaburu kaleko 29raino. 10 Area. Gatzaraborda Mendebaldea.

208.184,35 €

**06** Proyecto de reforma de la C/ Urdaburu. Infraestructuras. N°s 2 y 4 trasera C/ Murumendi al n° 29 C/ Urdaburu. Area 10. Gatzaraborda Oeste.

208.184,35 €

**07** Beraungo kirol pisten eta frontoiko estalkiaren eustorma egonkortzea Burutzapen Proiektuaren proiektu eta Obretako Zuzendaritza idaztea.11 Area. Beraun.

56.346,93 €

**07** Redacción de proyecto y Dirección de Obra del Proyecto de Ejecución de estabilización del muro de contención de las pistas polideportivas y cubierta del frontón de Beraun. Area 11. Beraun.

56.346,93 €

Obra proiektuak, guztira:

3.328.471,00 €

Total proyectos de obras:

3.328.471,00 €

**GIZARTE EKINTZETAKO PROGRAMAK**

**PROGRAMAS DE ACTUACIÓN SOCIAL**

**01** Gaztelutxo Balio Anitzeko Harrera Zentroaren Kudeaketa Integrala

467.000,00 €

**01** Gestión Integral del Centro Municipal de Acogida Polivalente Gaztelutxo 467.000,00 €

**02** Ikastetxe eta haur eskolak garbitzeko programa.

367.203,00

**02** Programa de limpieza de centros escolares y escuelas infantiles

367.203,00 €

Gizarte ekintzak, guztira:

834.203,00 €

Total actuaciones sociales:

834.203,00 €

**4.- Atxiki gabeko zinegotziek Udalaren Batzorde Berriemaileetan izango duten osaketari egokitzeko proposamena.**

Auzitegi Gorenak, EAE-ANV legez kanpo uzteko hasitako prozedura berezia dela eta, 2009ko uztailaren 16an emandako epaia exekutatzeko Autoa agindu zuen. Bertan, besteak beste, udaletan EAE-ANVko zinegotzi hautetsiek eratutako udal taldeak ezabatzea erabakitzen da, eta aurrerantzean udalerrietako udalbatzetan atxiki gabeko partaideak izatera pasako direla.

Errenteriako Udalak jakin zuen, 2009ko urriaren 30ean eginiko osoko bilkuran, Alkatetzak, aurrekoa betez, dekretu eman zuela Karlos Murua Roma, Itsasne Alvarez de Eulate Lasa, Luis Santiago Angulo Martín, Agustina Ana Cano Cereijo, Iñaki Queral Coira eta Gorka Maudes Migueltorena zinegotziak Udal honetan atxiki gabeko zinegotziak izatera pasatzeko.

Aurrekoaren ondorioz, zinegotzi hauen udal jarduera arautu beharra dago, baina indarrean dagoen Araudi Organikoak ezer ez du esaten gai horri buruz, eta berria aztertze eta eztabaida prozesuan dago.

**4.- Propuesta de adaptación a la composición de las Comisiones Informativas Municipales de los Concejales no Adscritos.**

El 16 de julio de 2009 el Tribunal Supremo dicta Auto de ejecución de la sentencia dictada en el procedimiento especial incoado para la ilegalización de EAE-ANV por el que, entre otras, se acuerda declarar la disolución de los grupos municipales constituidos por los concejales electos por EAE-ANV en los ayuntamientos a que se refiere el propio Auto, que pasarán a tener la consideración de miembros no adscritos en las respectivas corporaciones municipales.

El Ayuntamiento de Errentería, en sesión plenaria de fecha 30 de octubre de 2009 tiene conocimiento del Decreto de Alcaldía dando cumplimiento a lo anterior y en su consecuencia los concejales Karlos Murua Roma, Itsasne Alvarez de Eulate Lasa, Luis Santiago Angulo Martín, Agustina Ana Cano Cereijo, Iñaki Queral Coira y Gorka Maudes Migueltorena, pasan en lo sucesivo a tener la consideración de miembros no adscritos de esta Corporación municipal.

Se plantea, en consecuencia, regular la actividad municipal de estos concejales, siendo de observar que en el vigente Reglamento Orgánico nada se dice al respecto y el nuevo está en proceso de estudio y debate para su ulterior aprobación.

TAOALren 20.1.c artikuluaren azken zatian zera dio: "Udalbatza osatzen duten talde politiko guztiek izango dute aipatutako organoetan parte hartzeko eskubidea, taldeotako zinegotziak organo horietan egonda, osoko bilkuran duten zinegotzi-kopuruaren arabera". Gauza bera gertatzen da AJAren 125. artikuluaren b eta c ataletan, zeinak udal talde politikoak ordezkaritzaren baitan osatu behar direla baitio. Hori horrela, badirudi ondorioztatu litekeela udal batzordeetako eskubidedun osoko partaidea izateko udal taldeei erreserbaturik dagoela. Aitzitik, jurisprudentziak, batez ere Konstituzionalarenak, arau nagusi gisa onartzen ari da, afera publikoei buruzko erabakiak hartu aurretik aztertu eta analizatzearren batzordeetan parte-hartzea Espainiako Konstituzioaren 23. artikuluan errekonozitutako eskubidearen funtsezko atal modura. Ildo horri jarraiki, Auzitegi Konstituzionalak 2009ko uztailaren 9an emaniko 169/2009 zk.ko erabakian, onartzen du errekurtsogileen babesa eta hautetsi guztiek batzorde berriemaileetan parte hartzeko eta bozkatzeko eskubidea dutela dio. Eta eragina du hautetsi-kargua (kasu honetan zinegotzi) berari Espainiako Konstituzioaren 23. artikuluak ematen dizkion ordezkaritza-eginkizunetan.

Bestalde, epai horretan bertan nabarmentzen da "atxiki gabeko"ek batzordeetan izan behar duten proportzionaltasuna eta

El art. 20.1.c LRBRL in fine dice: "Todos los grupos políticos integrantes de la corporación tendrán derecho a participar en dichos órganos (comisiones) mediante la presencia de concejales pertenecientes a los mismos en proporción al número de concejales que tengan en el Pleno." De la misma manera el ROF en su art. 125.b y c adjudica la representación en su composición a los grupos políticos municipales. De lo anterior parece deducirse que la cualidad de miembro de pleno derecho de las comisiones municipales está reservado sólo a los grupos municipales. Sin embargo la jurisprudencia, sobre todo la constitucional, viene admitiendo como regla suprema a preservar la participación en las comisiones que sirven de estudio y análisis previo a las decisiones como parte sustancial del derecho reconocido en el artículo 23 de la Constitución Española a participar en los asuntos públicos. En este sentido el Tribunal Constitucional en sentencia número 169/2009, dictada el 9 de julio de 2009, admite el amparo de los recurrentes y dispone que, el derecho de todos los electos a participar y votar en las comisiones informativas incide en el núcleo de las funciones de representación que son propias del cargo electo (concejal en este caso) que otorga el citado artículo 23 de la Constitución Española.

Por otra parte, la misma Sentencia incide en la proporcionalidad de la presencia de los "no adscritos" en las comisiones

determinatzen du —Udalbatzaren antolaketa eta funtzionamendua arautzen duten arauen bidez, edo TAOALren 73.3 artikuluak xedatzen duena bide dela— bidezkoak diren antolaketa-ebazpenak hartu behar direla, hain zuzen, atxiki gabeko zinegotziek batzorde berriemaileetan parte hartzeko eta bozkatzeko duten eskubidea, eta gisa horretan, goian aipaturiko proportzionaltasuna ez aldatzeko”.

determinando que “ya sea a través de las normas que regulen la organización y funcionamiento de la corporación, o del propio acuerdo a través del cual se materialice lo dispuesto en el artículo 73.3 LBRL, habrán de adoptarse las disposiciones organizativas que procedan, de cara a garantizar que el derecho de los Concejales no Adscritos a participar en las deliberaciones y a votar en las comisiones informativas no altere la citada exigencia de proporcionalidad.”

Kontu-hartzaileak 2009ko abenduaren 9an gaiari buruzko txostena egin du.

Visto el informe del Sr. Interventor de fecha, 9 de diciembre de 2009.

Aurrekoaren ondorioz, eta Araudi Organiko berriaren bidez gaiari buruz arautzen denaren baitan,

En consecuencia de lo anterior, y sin perjuicio de lo que se regule sobre la materia a través del futuro nuevo Reglamento Orgánico.

Lehendakaritza batzordeak proposatuta, Udalako Idazakariaren oneritzia eman ondoren.

Vista la propuesta de la Comisión de Presidencia, con la conformidad del Secretario del Ayuntamiento.

Mintzatu dira:

Se produce las siguientes intervenciones:

* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) adierazi du proposamen horrekin zinegotzi guztiek dituzten eskubideak bermatzeko urrats bat ematen dela, eta horrekin denek pozik egon beharko luketela. Dena den, bere aburuz, zinegotzi guztiak baldintza berdinetan aritzeko behar diren beste neurriak ere hartzeko premia dagoenez, eta hortaz denek

* Interviene el Sr. Murua (Concejales no Adscritos) en euskera señalando que con dicha propuesta se da un paso en orden a garantizar los derechos que poseen todos los concejales, con lo cual todos se tendrían que alegrar. En cualquier caso, cree que para que todos los concejales actúen en las mismas condiciones existe la necesidad de

ardura dutenez, eskatzen dute urrats horiek ahalik eta azkarren emateko.

adoptar otras medidas, y como en ello todos tienen responsabilidades, solicitan que se den cuanto antes los susodichos pasos.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du berak itxaroten duela Udalbatzera ekarri den proposamenak lagunduko duela behin-behinekotasun egoera horretatik denek bereganatuta duten bestera ahalik eta azkarren igarotzeko.

* Interviene el Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que confia en que la propuesta que se trae al Pleno contribuya a seguir avanzando en los pasos que haya que dar para pasar de esta provisionalidad a una situación ya asumida por todos, a la mayor brevedad posible.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, aho batez,

El Pleno de la Corporación por unanimidad,

**E R A B A K I   D U**

**A C U E R D A**

1. Udalaren Batzorde Berriemaileak ondorengo eran osaturik egongo dira:

1º.- Adaptar la composición de las Comisiones Informativas Municipales fijando al efecto la siguiente distribución:

**Ogasuna, Lehendakaritza eta Barne-antolaketa, Kultura, Hirigintza, Gizarte Zerbitzuak batzordeetan:**

- Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak taldeak 3
- EAJ-PNV taldeak 1
- Ezker Batua-Berdeak taldeak 1
- PP taldeak 1
- Alkarbide taldeak 1
- Atxiki gabekoak 3

**Comisiones de Hacienda, Presidencia y Régimen Interior, Cultura, Urbanismo, Servicios Sociales:**

- Grupo Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 3
- Grupo PNV 1
- Grupo Ezker Batua-Berdeak 1
- Grupo PP 1
- Grupo Alkarbide 1
- No Adscritos 3

**Trafikoa eta Garraioa, Hezkuntza eta Gazteria, Mendi eta Ingurumena, Euskara batzordeetan:**

**Comisiones de Tráfico y Transportes, Educación y Juventud, Medio Ambiente y Montes, Euskera**

- Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak taldeak 3
- EAJ-PNV taldeak 1
- Ezker Batua-Berdeak taldeak 1
- PP taldeak 1
- Alkarbide taldeak 1
- Atxiki gabekoak 2

**Kontuen Batzorde Berezian: talde bakoitzeko partaide bat eta atxiki gabeko zinegotzi bat.**

2. Eskatzea Murua, Alvarez de Eulate, Angulo, Cano, Queralt eta Maudes jaun-andreei Udaleko Idazkariari jakinaraz diezaioten aurreko irizpidearen arabera egingo duten banaketa.

3. Atxiki gabeko zinegotziek euren jarduna egin ahal izateko beharrezko azpiegitura-materiala edukiko dute.

**5.- EAEko Administrazioa eta Errenteriako Udalaren arteko lankidetza hitzarmena, CEP Pio Baroja LHI ikastetxe publikoa zegoen eraikina beste erabilera, zerbitzu eta xede batzuetarako erabiltzekoa, onartzeko proposamena**

2008ko urriaren 31n, Udalbatzaren Osoko Bilkurak, besteak beste, ondorengo akordioa hartu zuen:

*"BAIMENA ESKATZEA Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari, Urdaburu kaleko Pio Baroja ikastetxe publikoa zegoen eraikineko*

- Grupo Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 3
- Grupo PNV 1
- Grupo Ezker Batua-Berdeak 1
- Grupo PP 1
- Grupo Alkarbide 1
- No Adscritos 2

**Comisión Especial de Cuentas: Un miembro por cada grupo y un concejal No adscrito.**

2º.- Solicitar a los Sres. Murua, Alvarez de Eulate, Angulo, Cano, Queralt Y Maudes, procedan a comunicar al Secretario del Ayuntamiento la distribución de miembros con arreglo al criterio anterior.

3º.- Los Concejales no Adscritos tendrán a su disposición la infraestructura material necesaria para su actuación.

**5.- Propuesta de aprobación del convenio de colaboración entre la Administración de la CAV y el Ayuntamiento de Errenteria para la utilización del antiguo CEP Pío Baroja para otros usos y servicios.**

El Pleno de la Corporación, en la sesión ordinaria del 31 de octubre de 2008, aprobó, entre otros, el siguiente acuerdo:

*"SOLICITAR del Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco, autorización para el uso de las instalaciones de los edificios en*

*instalazioak, jarduera soziokulturaletarako eta gazteen jardueretarako erabiltzeko – 5 urtez, gutxi gorabehera –, hain zuzen ere, eskola erabilerarako beharrezkoak ez diren bitartean".*

*los que se ubicaba el Colegio Público Pío Baroja, sitos en la c/ Urdaburu, para desatinarlos a actividades socioculturales y de juventud durante un periodo estimado de 5 años, en tanto no sean necesarios para uso escolar".*

Hezkuntzako Lurralde Ordezkaritzak erabakitakoaren arabera, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila eta Errenteriako Udalaren artean lankidetza hitzarmena sinatzea da eraikin hori beste gauza, zerbitzu eta xede batzuetarako erabiltzeko eskaerari erantzuteko tresna juridikorik egokiena.

La Delegación Territorial de Educación ha estimado que el instrumento jurídico más adecuado a la petición es la firma de un convenio de colaboración entre el Departamento de Educación, Universidades e Investigación y el Ayuntamiento de Errenteria para destinar los citados edificios a otros usos, servicios y finalidades.

2009ko abenduaren 2an bidali da EAEko Administrazioa eta Errenteriako Udalaren arteko lankidetza hitzarmena, hots, Pio Baroja IHI ikastetxeari beste erabilera eta zerbitzu batzuetarako erabiltzeko.

Con fecha 2 de diciembre de 2009 se ha remitido el convenio de colaboración entre la Administración de la CAV y el Ayuntamiento de Errenteria para la utilización del antiguo CEP Pío Baroja para otros usos y servicios.

Espedientearekin batera bidali da Kontratazio Saileko teknikariak eta Kultura, Hezkuntza eta Gazteria Saileko teknikariak, 2009ko azaroaren 26an emandako txosten bateratua.

Consta en el expediente informe conjunto del Técnico de Contratación y Patrimonio y de la Coordinadora Técnica de Cultura, Educación y Juventud de fecha 26 de noviembre de 2009.

Hezkuntza eta Gazteria batzordearen proposamena ikusitakoan.

Vista la propuesta de la Comisión de Educación y Juventud.

Mintzatu dira:

Se producen las siguientes intervenciones:

* Angulo jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) adierazi du euren jarreraren berri Hezkuntza

* Interviene en euskera el Sr. Angulo (Concejales no Adscritos) manifestando que en la comisión de

batzordean eman zutela. Alabaina, eurek horrelako eraikinak herritarrentzako erabilera egokia ematearen aurka ez badira ere, euren aburuz, herri honek beste behar batzuek ere baditu. Esaterako: urtero herrian 300 ume inguru jaiotzen dira. Beraz, 2 urtetan 600 bat ume izaten dira, eta horientzako 0-1 haurreskola-eskaintza, gutxi gora-behera, 70 plaza izaten dira, %12 inguru. Orduan, eurek uste dute Udalak eskaintza hori zabaldu beharko lukeela, eta ikusita hezkuntza menpeko eraikin bat dela, hor beste haurreskola bat, gutxienez eraikinaren zati bat baliatuz, egin beharko litzakeela pentsatzen dute. Horregatik, iruditzen zaie proposamen honekin aukera bat galtzen dela, hezkuntzako eraikinak lehenik hezkuntzarako izan beharko luketela, nahiz eta, bestea ere ez duten gaizki ikusten. Ondorioz, bozkatzeko garaian abstenituko dira.

Educación dieron cuenta de su postura. En ese sentido, aunque ellos no están en contra de que a ese edificio se le dé un uso adecuado a favor de los ciudadanos, consideran que este pueblo, asimismo, tiene otras necesidades. Por ejemplo: en la villa al año nacen entorno a 300 niños, y por tanto, en 2 años suman alrededor de 600, sin embargo, la oferta preescolar existente de 0-1 años es de unas 70 plazas, un 12%, poco más o menos. Por dicho motivo creen que el Ayuntamiento debería ampliar dicha oferta, y viendo que este edificio está subordinado a educación, piensan que ahí habría que implantar, por lo menos utilizando una parte del edificio, un preescolar. Por dicha causa, creen que con esta propuesta se pierde una oportunidad, puesto que un edificio de educación en primer lugar tendría que ser para educación, aunque tampoco lo otro consideran que sea malo. En consecuencia se abstendrán a la hora de votar.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) lehenik eta behin esan behar du bi eraikin direla, hots, haurreskola zena eta jangela, zeina, bere ustez, Galtzarabordako Erretiratuentzako Elkartea izateko egokia baita. Izan ere, berak dakienez, hori baita prekarioan dagoen bakarra. Horrela, gainontzeko Erretiratuen Elkarteak nahiko duinak badira ere —ez dute ahaztu behar, esaterako, Olibetekoan 500.000 euro inbertitu dituztela—,

* Interviene el Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que en primer lugar tiene que decir que son dos edificios, lo que era el parvulario y luego el comedor, que es idoneo para asignárselo al Hogar del Jubilado de Galtzaraborda, pues, que el recuerde, es el único que está en precario. Asi como el resto de los Hogares de Jubilados son bastante dignos, no hay que olvidar por ejemplo los 500.000 euros que se han invertido en Olibet, el de

Galtzarabordakoa ez zen, nahiz eta, bere garaian, bizilagunekin negoziatzen saiatu ziren eta akordio batera iritsi ez. Orain proposatzen den lokalak 160 metro karratu ditu eta uste du oso ondo etorriko zaiela albait lehen egin asmo dituzten egokitze-lan txiki batzuek egin ondoren. Gogorarazi nahi du ikastetxeari ematen zaion erabilera bat, berez haurreskolarena ez bada ere, eduki aldetik hala dela. Izan ere, Oarsoaldeak baliatzen baitu birgizarteratze-programa, etab.etan dauden emakumeen umeak jasotzeko. Beraz, bada, atxiki gabeko zinegotziak aitatzen duenetik zati bat burutzen da bertan. Hau da, hezkuntza-sistemaz hitz egingo balute, arautu gabeko irakaskintza deituko liokete. Uste du eurek arautu gabeko haurtzaindegia dei diezaioketela, nahiz eta horrekin ez duen esan nahi legez kanpokoa edo horrelako zerbait denik. Zergatik ez dagoen arautua. Ba, esaterako, ez dituelako hartzen zero-bi urteko haurrak, handiagoak baizik. Eta haurra ezin baldin badute eraman, bizilekura joateko zerbitzua dago, bertan, beharra izanez gero, haurra eta amari kasu egiteko.

Galtzaraborda no lo és, en su día se intentó negociar con los vecinos, pero no se llegó a ningún acuerdo. El local que se propone tiene unos 160 metros cuadrados y cree que les vendrá de maravilla, con una ligera adecuación que se acometerá lo más rapidamente posible. Recordar que uno de los usos que tiene el colegio en si, no es una guardería en sentido estricto, pero sí es una guardería en sus contenidos, gestionada por Oarsoaldea, para acoger a los hijos de mujeres que están en programas de inserción, etc. Por lo tanto, parte de lo que apunta el representante de los Concejales no Adscritos, también se está llevando a cabo. Si se hablara del sistema educativo se llamaría enseñanza no reglada, cree que aquí se podría decir que es una guardería no reglada, sin querer decir con esto que es ilegal ni nada por el estilo. ¿Por qué no es reglada?, porque por ejemplo, no contempla la atención de cero a dos años, sino que acogen a niños mayores. Y si el niño o niña no puede ir, hay un servicio previsto para desplazarse a la vivienda y poder atender las necesidades del niño y de la madre.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 15 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Alkarbide, PP, Ezker Batua-Berdeak) eta 5 abstentzioz (atxiki gabeko zinegotziak),

El Pleno de la Corporación por mayoría de 15 votos a favor (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Alkarbide, PP, Ezker Batua-Berdeak) y 5 abstenciones (Concejales no Adscritos),

**E R A B A K I D U**

1. Onespena ematea lankidetza hitzarmenari. Hitzarmen hori Eusko Autonomia Erkidegoko Administrazioa eta Errenteriako Udalaren artean sinatuko da unibertsitateaz kanpoko CEP Pio Baroja IHI ikastetxe publikoa zegoen eraikina beste erabilera, zerbitzu eta xedeetarako erabiltzeko. Hitzarmena proposamen honekin batera bidali da eranskin moduan (I Eranskina).

2. Alkateari baimena ematea hitzarmen hori eta akordio hori gauzatzeko beharrezkoa diren gainerako dokumentuak sinatzeko.

3.- Akordio honen berri ematea Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari zein Udaleko Kontratazio eta Ondare Sailari.

Jarraian,

Mintzatu dira:

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du azken orduan berak eginiko mozio bat banatu duela, hain zuzen, EAJ/PNVko zinegotzi Maite Peña Lopez andrea, KUTXAko Kontseilari Orokorrak hautatzeko prozesua hasten denerako, Errenteriako Udaleko ordezkari izendatzeko proposamena eginez. Horrela, bestetan gertatu ohi denez,

**A C U E R D A**

1º.- Aprobar el convenio de colaboración entre la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el Ayuntamiento de Errenteria para la utilización del edificio publico escolar en el que se ubicaba el antiguo centro público de enseñanza no universitaria CEP Pío Baroja lHI, para otros usos, servicios y finalidades, que se adjunta como Anexo I a la presente propuesta.

2º.- Autorizar al Sr. Alcalde para la firma del mencionado convenio y de cuantos otros documentos sean precisos para llevar a efecto este acuerdo.

3º.- Comunicar el presente acuerdo al Departamento de Educación, Universidades e Investigación del Gobierno Vasco y al Departamento de Contratación y Patrimonio del Ayuntamiento.

Seguidamente.

Se producen las siguientes intervenciones:

* Interviene el Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que, a última hora ha repartido una moción suya proponiendo el nombramiento de la Concejala de EAJ/PNV Maite Peña López, como Consejera General representante de este Ayuntamiento de Errenteria cuando se inicie proximamente el proceso de elección de Consejeros Generales de KUTXA.

hots, KUTXAko agintaldiak ez direlako Udal Hauteskundeekin batera egiten, desfaseak ematen dira. Eta gai honek beste gauza batzuk egiten harrapa ez ditzan, mozioan adierazten duena onar dezaten proposatzen du. Izan ere, berak mozioa aurkezteko ahalmena du, eta gainontzekoek, berriz, alde edo aurka azaltzeko. Berak ez daki hauteskunde horiek zehatz-mehatz noiz egingo diren, baina uste du garaiz ibiltzea bere betebeharra dela.

Esta es su propuesta, como ha hecho en otras ocasiones y dado que los tiempos de la KUTXA no son los mismos que las Elecciones Municipales, se encuentran con desfases de este tipo. En previsión de que el tema pueda pillarles en una época en la que estén a otras cosas, propone a los presentes que se acepte lo expresado en su moción. Él tiene la facultad de presentar esta moción y el resto la de apoyarla o no. Es verdad que desconocen la fecha exacta, pero es un deber que pueden hacer con tiempo.

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) adierazi du eurek aldeko botoa emango dutela, baina hori gehiago da proposatu den pertsonari dioten begiruneagatik, Alkate jaunak aitatu berri duen premiatasunagatik baino, izan ere, haren ustez, ez baitu batere presarik. Bere iritziz nahiko denbora zeukaten izendapen hau osoko bilkura baino lehen jakinarazteko eta mota honetako gaiak presaz ez tramitatzeko. Gainera, bere aburuz, tipo honetako metodoa baliatuz, ez diete batere mesederik egiten proposaturiko pertsonari.

* Interviene el Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak) manifestando que, votarán a favor, pero más por deferencia hacia la persona propuesta que por la urgencia del tema, que como el Sr. Alcalde acaba de señalar, no tiene absolutamente ninguna. Piensa que habrán tenido tiempo para comunicarles este nombramiento con anterioridad al Pleno y no recurrir a la tramitación de urgencia en un asunto de este tipo. Incluso se le hace un flaco favor a la persona propuesta utilizando un método de este tipo.

* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) adierazi du premiazko prozedura baliatzeko aldez aurretik nolabait justifikatu behar dela, eta uste dute une horretan justifikazio horrenik ez dela existitzen. Ez dakite honi buruz Idazkariak zerbait esan beharko zukeen, baina eurentzat argi dago premiarik ez dagoela.

* Interviene en euskera el Sr. Murua (Concejales no Adscritos) manifestando que para hacer uso del procedimiento de urgencia, de alguna manera, hay que justificarlo. Consideran que no existe dicha justificación. Desconocen si en relación al tema el Sr. Secretario tendría algo que decir, pero para ellos está claro que no existe

urgencia alguna.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) lehenik eskerrak eman dizkio Ferradas jaunari (Ezker Batua-Berdeak) kontua konprenitzeagatik. Bigarrenez, esan nahi du presa gutiagorekin gaiak hara eraman izan dituztela, baita onartu ere. Uste du denek horretaz jabetuta egongo direla. Bere aburuz, premiazko aitorpena kontu lauso samarra da, zeren eta, zein da premia, nolakoa, noraino, galdetu du. Eta, berriro dio, ez duela batere lotsarik sentitzen gai hori premiazko gisa aurkezteko, izan ere, bere irudiko, beste noizbait beste gaiak presaz ikusteko bozkatu izan duelako.

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) agradece en primer lugar la comprensión del Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak). En segundo lugar, decir que temas de menor urgencia se han traído, se han asumido y se han admitido, cree que todos son conscientes de esto. Entiende que la declaración de urgencia pueda ser un término un tanto laxo, ¿cuál es la urgencia, cuanta, hasta donde?, pero repite que si no tiene ningún pudor en presentar este tema como urgente, es porque en alguna ocasión ha dado su voto a otros para que se traten con urgencia, siendo menos urgentes que éste.

* Queralt jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) adierazi du premiatasuna baloratzen hasi gabe, gustatuko litzaiokeela argitzea, ea zein den benetako prozedura hautagai hori onartzeko. Bere iritziz, logikoena izango litzateke hautagaiak aurkeztu ahal izateko epe bat irekitzea. Izan ere, pentsatzen du iritzi ezberdinak egongo direla, talde diferenteak, eta behin hautagaiak ezagutzera emandakoan, horien artean aukeratuko zuketen beste gaiekin egiten duten moduan. Orain, har ezazue edo utzi, beste alternatibarik gabe egitea, ez zaie hautaketa egiteko modurik egokiena iruditzen.

* Interviene el Sr. Queralt (Concejales no Adscritos) manifestando que sin entrar en la valoración de la urgencia, le guastaría que se aclarase cual es el procedimiento real para aprobar esta candidatura. Lo lógico hubiera sido que se abriera un plazo para presentar distintas candidaturas, imagina que aquí hay distintas opiniones, distintos Grupos, y una vez hubiera una serie de candidaturas se pasara a elegir entre ellas, como se hace con otros temas. Que se les presente un tómalo o déjalo, sin ninguna otra alternativa, no les parece que sea el mejor método de elección.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du udal

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) señala que la

organoetako (Añarbeko urak, San Marko mankomunitatea, kasu honetan Kutxa, etab) izendapenak Alkateak egiten dituela, eta gero, besteek onartu edo errefusatu. Kasu honetan, lehen "Zapatero Plana 2"-rekin gertatu den moduan, batzordetik pasa ez delako, eta Gai Zerrendan ez zegoelako sartuta, premiazko gai gisa aurkeztu du. Gainontzerakoan, errepikatzen du, proposamenak Alkateak ekartzen ditu, gero onartuak edo errefusatuak izango direnak.

designación de los representantes en los órganos no municipales, bien sea Aguas del Añarbe, Mancomunidad de San Marcos, Kutxa en este caso, etc., la realiza el Alcalde y luego se aprueba o se rechaza. En este caso, al igual que ha ocurrido antes con el denominado "Plan Zapatero 2", al no haberse dictaminado en ninguna Comisión y no figurar además en el Orden del Día, se presenta como tema de urgencia. Por lo demás, repite que es el Alcalde quien trae las propuestas que luego serán admitidas o rechazadas.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Finalizadas las intervenciones.

Alkateak proposatuta.

A propuesta del Alcalde.

Aldez aurretik, zegokion batzordeak irizpenik eman ez duelako, gehiengoz, aldeko 15 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Alkarbide, PP, Ezker Batua-Berdeak) eta 5 abstentzioz (atxiki gabeko zinegotziak), erabaki dute

Previa su inclusión por mayoría de 15 votos a favor (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Alkarbide, PP, Ezker Batua-Berdeak) y 5 abstenciones (Concejales no Adscritos) al no haber sido dictaminado por la Comisión correspondiente.

ondoko gaia ikustea:

Pasa a tratarse el siguiente tema:

**6. Alkatetzaren mozioa, Maite Peña López andrea Kutxako kontseilaria izendatzeko proposatzen duena.**

**6.- Moción de Alcaldía por la que se propone el nombramiento de Maite Peña López como Consejera General en Kutxa.**

Idazkariak ondoko mozioa irakurri du:

Leída por al Alcalde la siguiente Moción:

"Honen bidez proposatzen dut EAJ/PNVko zinegotzi Maite Peña Lopez

"Por medio de la presente propongo el nombramiento de la

andrea izendatzea Errenteriako Udaleko kontseilari-ordezkaria aurki hasiko den KUTXAko Kontseilari Orokorrak hautatzeko prozesuan".

Ondoren, mintzatu dira:

* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) adierazi du eurei gustatuko litzaiekeela beste proposamen bat edukitzea, bere aldean dauden zinegotzien interesak ordezka zezakeen bat hain zuzen ere. Eta hori zergatik? Ba, Udala erakunde askotan (kakotx artean) ordezkatuta dagoelako eta ordezkaritza hori Gobernu Taldeak monopolizatuta duelako. Kasu hau, nolabait, uler zezaketen, baina ez dute ulertzen monopolizazio hori gardentasun ezeko kontu batean bilakatu izana. Zeren eta, eurek orain jakin baitute Kutxan ordezkari bat dutela. Hainbat urte daramate bertan, eta zinegotziei, gutxienez euren taldekoei, sekula ez diete eman Kutxako informaziorik, ezta han defendatu dutenari buruzkoa ere. Beraz, bada, bere aburuz, berriro baztertze-kontu baten aurrean daude; ez diete informaziorik ematen. Eta argi eta garbi dago, erakunde horretan jarduten duten ordezkariek, euren alderdia edo Gobernu Taldearen ordezkari gisa jarduten dutela. Gainera, hori ez da soilik Kutxan gertatzen, baita beste erakundeetan ere, nabarmendu du. Horregatik, ezin dute izendapen berririk onartu, hots, informaziorik emango ez diena eta han defendatuko duena Udal

Concejala de EAJ/PNV Maite Peña López, como Consejera General representante de este Ayuntamiento de Errenteria cuando se inicie proximamente el proceso de elección de Consejeros Generales de KUTXA."

Se producen las siguientes intervenciones:

* Interviene el Sr. Murua (Concejales no Adscritos) manifestando que a ellos les hubiera gustado que hubiese otra propuesta, alguna que representara los intereses que los Concejales que están en su lado representan. Y esto ¿por qué?, porque son varias las entidades donde el Ayuntamiento, entre comillas, está representado y esa representación está monopolizada por el Equipo de Gobierno. Esto en alguna medida podría entenderse, pero lo que no entienden es que esa monopolización se convierta en un asunto de falta de transparencia, porque para ellos es la primera noticia de que tienen un representante en Kutxa. Llevan varios años ahí y a los Concejales, al menos a los de su Grupo, en ningún momento se les ha dado ninguna información de Kutxa, ni de lo que allí se ha defendido. Se encuentran en una situación en la que de nuevo se les excluye, se les niega la información y queda en evidencia que los representantes que actuan ahí, lo hacen, no sabe si a nivel partidista o del Equipo de Gobierno. Esto no solo ocurre en Kutxa, sino también en otras entidades. Por tanto, no pueden aceptar un nuevo nombramiento que

honetan —honen izenean joanda— sekulan berretsia izan ez dena.

lleve implicito el que no vayan a tener ninguna información y que lo que allí se defienda en ningún momento sea refrendado por este Ayuntamiento, cuando va en nombre del mismo.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) adierazi du berak beti modu horretan egiten ikusi duela. Orain denek badakite nor izango diren Udalaren ordezkariak Kutxan, osoko bilkura horretan bertan bozkatu dutelako. Une honetan —dio— Acosta jauna (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) eta Peralta andrea (PP) daude, eta, berriro esan du, osoko bilkuran bozkatu zela, eta udal guztietan gertatzen den moduan, honen izenean eta eskumenez jarduten dute. Ondoren, Murua jaunari (atxiki gabeko zinegotzia), txantxa gisa, Kutxan zer onartzen den jakin nahi badu, bezperatako asanbladatan gertatutakoa prentsan irakurtzea nahikoa duela esan dio.

* Interviene el Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) manifestando que, él es el metodo que siempre ha visto utilizar. Ahora todos saben quienes son los representantes del Ayuntamiento en Kutxa, ya que se votó en este Pleno. En este momento son el Sr. Acosta (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) y la Sra. Peralta (PP), e insiste en que se votó en Pleno, actuan en nombre de la facultad que éste les da, como pasa en todos los Ayuntamientos. En tono de broma le dice al Sr. Murua (Concejales no Adscritos) que si se quiere enterar de lo que se aprueba en Kutxa, no tiene más que leer la prensa la víspera de las asambleas.

* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) erantzun du berari gustatuko litzaioke, prentsak esaten duena irakurtzeaz gain, Udalak han zer defendatzen duen jakitea. Zeren eta, azkenean, prentsan Kutxak hartzen dituen erabakiei buruz esaten duena matematika kontu bat baino ez baita, alegia, gehiengoak irabazten du eta kito. Baina berari gustatuko litzaioke jakitea Udalak zer defendatzen duen, erakunde honetako partaide bat delako.

* El Sr. Murua (Concejales no Adscritos) responde que lo que a él le gustaría, además de leer lo que diga la prensa, es saber qué es lo que el Ayuntamiento, como tal, defiende allí. Porque al final, lo que diga la prensa sobre las decisiones que toma el ente Kutxa, es una cuestión matemática, gana la mayoría y punto. Pero sí que le gustaría saber lo que defiende el Ayuntamiento, puesto que es miembro del mismo.

* Ondoren, mikrofonoa itxita hika-mika aritu dira. Jarraian,

* Se produce un murmullo a micrófono cerrado y el Alcalde Sr.

Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak), errepikatu du, osoko bilkuran bozkatu zela. Besterik da, lehen esan duen moduan, Kutxako agintaritzaldiak udalekoekin bat ez etortzea, eta honen ondorioz, beharbada, bertan dauden zenbaitek ez zuten jakingo zein diren ordezkariak, baina, berriro dio, orduan zeuden zinegotziek bozkatu zutela.

Mintzaldiak amaitutakoan.

Udalbatzak, gehiengoz, aldeko 13 botorekin (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Alkarbide, PP) eta 7 abstentzioz (Ezker Batua-Berdeak, atxiki gabeko zinegotziak),

**E R A B A K I D U**

**Onartzea** Alkatetzaren mozioa, akordio honen azalpen-zatian jasota geratu dena.

**7. Galdera-eskariak.**

* Ferradas jaunak (Ezker Batua-Berdeak) esan du oso erantzun errazeko galdera bat egin nahi duela. Hau da: bai edo ez. Ba al du Alkate jaunak Galemys, S.L.k Listorreta parke publikoaren erabileraz eginiko memoriaren berririk?

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) ezetz erantzun du.

Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) repite que se votó en Pleno. Otra cosa es que, como antes ha dicho, los períodos de Kutxa no coinciden con los de elecciones municipales y esto plantea la cuestión de que quizás algunos de los presentes no supieran quienes son los representantes, pero repite que eso lo votaron en Pleno los Corporativos que entonces estaban.

Finalizadas las intervenciones.

El Pleno de la Corporación por mayoría de 13 votos a favor (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak, EAJ/PNV, Alkarbide, PP) y 7 abstenciones (Ezker Batua-Berdeak, Concejales no Adscritos)

**A C U E R D A**

**Aprobar** la moción de Alcaldía que queda reflejada en la parte expositiva del presente acuerdo.

**7.- Ruegos y Preguntas.**

* El Sr. Ferradás (Ezker Batua-Berdeak) señala que quiere formular una pregunta de muy fácil respuesta, sí o no. ¿Conoce el Sr. Alcalde la memoria de Galemys, S.L. sobre el uso público del Parque de Listorreta?

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que no la conoce.

Jarraian.

* Agustina Cano andreak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du iraileko Udalbatzarrean gai horri buruzko galdera egin zutela. Hots, PMS-ri (Udalaren lurzoru-ondarea) buruzko txostena egingo zela. Orain, bi hilabete pasa direnez, jakin nahi du ea txostena noizko egongo den egina.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du ziur aski Hirigintzako teknikariaren baitan egongo dela. Denek badakizue —dio— departamentu hori erren samar geratu dela Enrique Ponteren gaixoaldi-baja luzearekin, gehi lehen Xabier Agirre egon zen zortzi hileko baja-aldiarekin. Orain ere, Vicente Castiella oporretan dago hilaren 28a arte, alabaina uste du kontu hori mahai gainean edukiko duela. Halere, Hirigintzako ordezkariari eskatzen dio kontuan hartzeko eta itzuli bezain laster gogorarazteko.

Ondoren.

* Murua jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du lehen ere parte-hartzeaz hitz egin izan dutela. Bere aburuz, Gobernu Talde honi gai honek beldurra ematen dio, baina eurek galdera egin beharrean aurkitzen dira. Izan ere, duela urte bat eta erdi baino gehiago eskaera bat egin zen Hirigintza Aholku Kontseilua biltzeko. Berari lotsa emango lioke hainbeste denboraren buruan hura ez

Seguidamente.

* Agustina Cano (Concejales no Adscritos) manifiesta en euskara que ya en el Pleno de septiembre preguntaron sobre este mismo tema. Esto es, entonces se dijo que se haría un informe relativo al PMS. Ahora, tras transcurrir dos meses, desean conocer para cuándo se hará el mismo.

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que, seguramente estará pendiente del técnico de Urbanismo. Todos saben que este Departamento ha quedado un poco cojo con la baja tan larga que ahora tiene Enrique Ponte, más la baja de ocho meses que tuvo Xabier Agirre y ahora mismo Vicente Castiella está de vacaciones hasta el próximo día 28, quien supone que lo tendrá sobre la mesa. No obstante, pide al Delegado de Urbanismo que lo tenga en cuenta para recordárselo en cuanto regrese.

Seguidamente.

* El Sr. Murua (Concejales no Adscritos) manifiesta en euskera que anteriormente se ha estado hablando en relación a la participación. A su juicio, este tema da miedo al Equipo de Gobierno, pero ellos tienen que preguntar ya que hace más de año y medio se hizo una petición de reunión del Consejo Asesor de Urbanismo. Él se avergonzaría por no haber llevado a efecto la misma. Por

gauzatu izanak. Horregatik, Alkateari eskatzen dio Kontseilu horren bilera ahalik eta azkarren egiteko.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) esan du ea erdiesten duten Hirigintza Saila nolabait libratzea. Gainezka eginda daudela konprenitzea nahi du. Lehen, TEEIEDFak zeukan presaz galdetu diotenean, Hirigintzak gai asko dituela burutzeke esaten zuen. Gaur egun hirigintza-garapenik, etab. ez dagoelako motel dabilela pentsa zezaketen, baina ziurtatzen die juxtu kontrakoa gertatzen dela. Gainera, bolada hau aprobetxatzen ari dira lehen tarteka eskapatzen ziren gaiak zorrotz —zentzu onean— kontrolatzeko. Izan ere, ez dute ahaztu behar Torrekuaren aferak, Euskotrenaren geltokia eta beste asko, esaterako, Plan Zapatero I-ek, jarraipen bat egitea exijitzen dutela; obrak bisitatzea; enpresekin bilerak egitea, etab. Bere iritziz, Hirigintza Saila lanez gainezka dago, eta, berriro dio, bateren batek ezetz pentsa dezakeela, baina hala dela sinets diezaioten, nahi du. Orobat, afera hau ere, jakinik egiteke dagoela eta egin behar dela, Hirigintzako ordezkariak kontuan hartzeko esaten dio.

Ondoren,

* Angulo jaunak (atxiki gabeko zinegotzia) esan du Lau Haizeta

dicho motivo, solicitan al Alcalde que convoque cuánto antes la reunión de dicho Consejo.

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que van a ver si consiguen desatascar la Comisión de Urbanismo, quiere que comprendan, de verdad, que están desbordados. Antes, cuando le preguntaban sobre la urgencia del FEESOL, decía que hay un montón de temas pendientes en Urbanismo. Podían caer en la tentación de simplificar y creer, puesto que no hay desarrollos urbanísticos, etc., que el Departamento ahora está en horas bajas y les asegura que es todo lo contrario. Se está aprovechando además para extremar el control, en el mejor de los sentidos, de temas que antes a veces no se podía hacer. No olviden que el tema de Torrekua, el de la Estación de Euskotren y otros muchos, como el Plan Zapatero I, requiere todo ello un seguimiento, una visita de obras, reunirse con las empresas, etc., etc. De verdad el Departamento de Urbanismo está desbordado, y repite que quizás alguno de los presentes puede tener la tentación de pensar que no, pero créanle que es así. También le pasa este recado al Delegado de Urbanismo, sabiendo que es algo que está pendiente y que hay que hacer.

Seguidamente.

* El Sr. Angulo (Concejales no Adscritos) manifiesta en euskara que

parkearen inguruan, duela urte eta erdi gutxi gora-behera, Hirigintza batzordeko kideek eskatu zuten Parkearen gauzatze-mailaz txosten bat egiteko. Horregatik, orain Alkate jaunari galdetzen diete ea zertan dagoen txosten hori eta lehenbailehen egiteko.

hace aproximadamente año y medio los miembros de la Comisión de Urbanismo, en relación al parque Lau Haizeta, solicitaron que se hiciera un informe sobre el nivel de ejecución del mismo. Por dicho motivo, ahora desean saber cómo está ese tema, y que se efectúe cuanto antes.

* Merino alkate jaunak (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) erantzun du, Enrique Pontek egiteke zeuzkan gaien artean hau zegoela ohartu dira. Aurreko bi kasuetan esan dien gauza bera esan behar dio orain: ikusiko dute urte berriarekin gai zenbait mugitzen dituzten, baita hau ere.

* El Alcalde Sr. Merino (Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak) responde que buscando entre los temas pendientes de Enrique Ponte, han descubierto que allí estaba este asunto. Tiene que decirle lo mismo que en los dos casos anteriores, van a ver si con el nuevo año pueden agilizar ciertos temas y éste también.

-----------

----------

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:50 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut Erkidego Autonomoko paper ofizialean, _____zenbakitik _____ra, eta nirekin batera Alkateak sinatu du. Egiaztatzen dut.

Y sin más asuntos de los que tratar, el Presidente levanta la Sesión, siendo las 09:50 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente Acta en los folios números ______ al ______ del papel oficial de la Comunidad Autónoma, firmando conmigo el Alcalde. Certifico.